



ZALDIBIAKO  
UDALA  
zaldibia.eus

Zaldibiako Udalak, Udalak kontraturiko ekintza baten testuinguruan izandako gertakari baten aurrean, honako adierazpena egin nahi du.

Udal honek irmoki gaitzesten du edozein pertsona edo kolektiboren aurkako jarrera arrazista edo diskriminatzailea, eta bereziki larria deritzo halako jokabideak adingabeei zuzenduta daudenean. Pertsona guztiek, beren jatorria, kultura, hizkuntza edo bestelako ezaugarriak edozein direla ere, errespetuz eta duintasunez tratatuak izateko eskubidea dute.

Zaldibia herri anitza eta inklusiboa da, eta aniztasuna balio eta aberastasun kolektibo gisa ulertzen du. Elkarbizitza oinarri sendoetan eraikitzeko, ezinbestekoa da berdintasuna, errespetua eta diskriminaziorik eza bermatzea, bai jarduera publikoetan, bai udalarekin harremana duten zerbitzu eta ekimen guztietan.

Halaber, Udalak azpimarratu nahi du horrelako egoerak ez direla isilik gorde behar. Gertatutakoa jakinarazi eta egoerari aurre egiteko jarrera aktiboa erakutsi duten pertsoneri eskerrak eman nahi dizkiegu; izan ere, halako jokabideei aurre egiteko ezinbestekoa da komunitatearen inplikazioa eta konpromisoa. Arrazakeriaren aurrean, isiltasuna ez da aukera bat.

Horrenbestez, Udalak berriro berresten du arrazakeriaren aurrean tolerantzia zero izango duela, eta beharrezko neurriak hartuko dituela halako egoerak errepika ez daitezen. Era berean, garrantzia eman nahi die herrian elkarbizitza, kulturartekotasuna eta berdintasuna sustatzeko martxan dauden ekimen eta programei, hezkuntza komunitatearekin, herriko eragileekin eta herritarrekin elkarlanean garatzen direnak.

Zaldibiako Udalak dei egiten die herritar guztiei elkarrekiko errespetuan, bizikidetzan eta aniztasunaren aitortzan oinarritutako herria eraikitzen jarraitzeko. Guztion ardura da giro segurua eta inklusiboa bermatzea.